

## ZERGATIK EZ?

Bermeoko aita, seme, neba eta iloba gehienak, goizaldeko lan gogorraren ondoren, maindire azpiko berotasun eta atsedenez gozaten zeuden kresalaren eraginez zurututako portu inguruko teilapeetan. Bitartean, herriko emakumeak, kai bazterrean eta ekaineko eguzki kiskalgarri pean, arraina sareetatik libratu osteko konponketetan zebiltzan. Emakume nekaezin hauetako bat, Maribel Larrañaga, kai muturretik aldendu eta negarrari eutsi ezinik, Joxe Latxaga, "Santa Lucia" itsasontziko patroia eta senarrarekin hitz egiteko etxeratu zen. Senarra lozorrotik iratzartzeko, garrantzitsua behar zuen haren esanak.

1902. urteko bokarta kanpaina, nahasi xamarra zetorren Bermeotarrentzat. Herriko udaletxe, kultur gune eta autoritate zen marinelen kofradiak, eztabaida ugariaren ostean, Bermeoko ontzidiaz erregulatuko zuen ordenantza berria onetsi zuen. Horrela, 1878ko enbatak eragindako ezbehar larriak saihesteko, 1905. urtetik aurrera, itsas zabalera arrantzatzeraz zihozten ontzi guztiek, lurrunezkoak izan behar zuten. Hogeigarren mendeak bi urte bete zituen horretan, Bermeoko ontzidiak lehen lurrun-itsasontzia eskuratu zuen, Luis Allika armadoreak Donostiako ontzian "Lenbizikoa" erositakoa. Iskanbila eta burrunba nagusi izan zen kai inguruan, askok, usadio zaharra eta tradizioa errotik birrindu nahi zuten deabruaren elementutzat hartu baitzuten. Urte latza izan zen hura Luis Allikarentzat, aurkarien harri eurizko abegi beldurgarria sufriarazten baitzuen Artzako kaian atrakutzen zuten bakoitzean. Denen buru, Maribel. Herritar askoren presio pean, marinelen kofradiak ordenantza indargabetu zuen, errukirik gabeko eskaintza eskariaren legeak, azken bela ontzien matxinada zapalduko zuenaren esperoan.

Joxe Latxagak tinko eutsi zion ordea bere "Santa Lucia" bela ontzi kutunari, Talapeko haitzak baino gogorragoa baitzen haren burua. Hamabi urterekin hasi zuen ogibidea "txo" bezala aita zenarekin. Harrezkero, esku batekin kontatu ahal ziren 42 oin luze eta 8,5 oin zabaleko bela ontzia itsasoratu ez zituen egunak. Arrantza, ogibidea baino zerbait gehiago zen harentzat eta ez zen hozkailuak lepo bete arte lehorreratzen. Itsasotik bueltatu eta itsasoarekin amets egiten jarraitzen zuen. Garaiko janzerak; egurrezko txokoloak, mahoizko galtza urdinak, kolore berberako alkandora luzea, txapela buruan eta ur gaziak labaintzeko linaza olio igurtzitako zira zaharra; mila pusketatan hautsitako bihotza estaltzen zuen. Maribel emazteak inoiz desio gabeko berria emana zion eguerdi hartan. Azken azterketa ginekologikoaren emaitzen arabera, Maribelek ezin zuen seme alabarik eduki. Errua, gauzak gaizki zihozten orotan bezala, emazteari leporatzen zion ezbeharrek zeharo itsutzen zuten Joxek. Emazteak berriz, senarraren tristura eta etsipenaren aurrean, bizitzarekin aurrera jarraitzeko indarra ateratu behar zuen. Etxeko lanetan aritzeaz gain, saregile ere bazen. Herriko gainontzeko emazteak bezala, diru parteak banatu osteko etekinak inork baino hobeto kudeatzen zituen. Metro eta laurogei zentimetroko emakumeak, erabakia hartu zuen, Bilboko umezurztegira joango zen hainbeste desio zuen oinordekoaren bila.

- Exposito bat neure "Santa Lucian" oinordeko? Ez dot ba oso argi ikusten...

- Neugaz zatoz edo bakarrik noa, zeuk ikusi!

Bilboraino eramaten zituen eguneko tren bakarrean igota, tentsioa eta urduritasuna ziren nagusi. Kartoizko bidaia-txarteletan zulatzaileak ateratzen zuen soinuak eta galdaratik indarrez ateratzen zen lurren soilik apurtzen zuten momentuko isiltasuna. Hiru ordutako bidai luzearen ondoren, Karmeldar Kongregazioko mojen Udal Umezurztegira heldu ziren. Atezainak areto nagusira bideratu zituen. Aurreko bikotearen urduritasunak izerditutako larruzko sofan etzan ziren, beraien aurrean ehunka neska mutiko gazte jolasean zebiltzan bitartean. Ama nagusia, Sor Agustina, berehala hurbildu zitzaien.

- Ongi etorriak izan zaitezela geurera eta Jaungoiko ahalguztidunak bedeinkatu zagitzala aukeraketa garrantzitsu honetan. Nor eroan gura dozue zuen etxeko babespera eta baldintzarik gabeko maitasunean eta kristau doktrinan hezi?

- Izkina batean bakarriketan dabilen neskato haregaz berba egin gurako neban. Hurbildu neinke apur bat? – Maribelen aukeraketak Sor Agustina harritu eta Joxe senarra haserretu zuen.

- Zuk bai ikuspegi ebanjelizatzailea maitea. Begoña dozu ha, umezurztegiko zaharrena eta geurean denbora gehien darena. Zoritxarrez, inork ez dau gura hamabi urteko neska bat eroan etxera, nagusiegi ikusten dabelako. Ez zarea damutuko, zin dagizuet. Neskato bizia, azkarra eta benetako kristau baloreez betetakoa da geure Begoña. Ama itsas biologian lizentziatua zan eta aita lurrunezko motorren injinerua. Afalosteko gaueroko ibilalditxoan, lapur batek ustekabeen harrapatu zauzen eta labankada banaz, andra-gizonei Jesukristo geure Jaunak emandako biziak betirako itzali ebazan.

Joxe, marmarka eta kopetilun, bizpahiru metro aldendu zen eta berarengana hurbiltzeko eskatu zion Maribeli.

- Burutik jota zagoz ala? Mutil bat hartu behar dogu, beso sendodun eta lanerako beti prest dagoan mutiko bat. Nork hartuko dau neure oinordetza "Santa Lucian" ba?

- Joxe, pasadan astien be berrehun kilo bokarta bakarrik deskargatu zenduzan eta ogorleko bat eta bi txakur handi tristetan saldu bentan. Zer geratu jaku diru partijak banatu eta gainontzeko gastuak ordaindu eta gero? Zorrak Joxe, zorrak! Esan notzun, "Lenbizikuek" eta beran atzetik etorri ziren danak, geure eguneroko jatekuegaz amaitzuko ebiela. Ezin dogu inondik inora eurekaz lehiatu Joxe. Onartu dagigun geure porrota. Laster txatarrerako bere ez da geratuko "Santa Lucia" eta dekogun diru apurragaz, mertzeri bat zabaldu al dogu.

- Neska bat etxera eroatea paso, baina neure ogibidea eta bizia lagatzea? Ezta pentsa bere ez!! Neuk atarako dot familia hau aurrera, zin dagizut!

Amaitu berri zen bikotearen solasaldi beroak, Begoñaren atentzioa deitu zuen. Bitan pentsatu gabe Joxerengana hurbildu zen irribarretsu.

- Parkatu, Joxe zara ezta? – puxika arrainaren muturra hustu eta baiezko keinua egin zion. – Zeurea da orduan “Santa Lucia” bela ontzia. Aukeraketa bikaina Joxe, 1852. urteko ontzia, Pasaiako ontzian inoiz eraikitako bela ontzirik onena. Nire aitona gabero irakurtzen eustan “Euskal ontzidia” liburuan agertzen ziran haren inguruko bitxikeriak idatzita. Ontzi iraultzailea zeurea, bai horixe, kroskoa zumar olez eraikia eta metro erdiko diametroan masta. Bizkaiko Golkoko iparreko haizeagaz, hegaz ibili behar da olatu gainean ezta? – neskatoaren begiek agertzen zuten lilurak, zeharo bigundu zuen arrantzale marmartiaren bihotza. Joxek ezin zuen sinetsi entzuten ari zena, neskato hark, ederki deskribatu baitzuen bere “Santa Lucia” maitea. Makurtu, bere altueran jarri eta txintik esan gabe baina oso hunkituta, estuki heldu zion eskutik eta elkarrizketan jarraitu zuten korridorean zehar.

- Banekien zuontzako alaba aproposa izango zala. Oinordeko bikaina “Santa Lucia” gobernatzeko ezta Maribel?

- Zer diozu Sor Agustina, mesedez! Joxek entzuten bazaitzu... Emakume bat arrantzan? Zergatik?

- Eta zergatik ez?

- Emakumeak ahulak garalako itsasoko lan gogorrerako! Geure beharra, umeak jabotea eta etxea gobernatzeko da.

Zuk zer jakingo dozu ba, komentutik ez bazara inoiz urten...

- Ez dot uste itsasoko lana eta emakumearen gaitasunak bateraezinak direzenik. Akaso emakumeak gizonezkoak baino balio gutxiagokoak gara? Jainkoak Adanen saihesten batetik sortu gintuen, bere irudi eta antzera. – kristau fedearen igorlearen berbek, harri eta zur utzi zuten Maribel. – Etxeko lanetan eta umeen zaintzan aritzea errespetagarria eta zilezkoa ikusten dogun moduan, itsasoko lana gustuko dauan emakume batek bere desirak betetzea be errespetatu beharko leikez.

- Sor deusudan errespetuagatik, isildu egingo naz eta ez deusudaz burutik pasatzen ari jatazan astakeriak esango. Agur! – atera laguntzeko asmoz hurbildu zitzaion mojina baina minduta zihoan emakumeak, gonbitari ezetza eman zion modu txarrean. – Badakit non dagoan urteera, eskerrik asko!

Herriko gainontzeko neska gazteen modura, emakumeen irakaskuntzan ziharduten ahizpa “Josefinatarren” kongregazioaren kristau-dotrina pean hezi zen Begoña. Bere gurasoak zirenek pentsamolde askea izateko hezi zuten neskatoa, emakumea zaintzarako bakarrik ikusten ez zuen hezkuntzaren uztarri pean bizi izatera derrigortu zuten. Nerabezaroan sartuta eta egunerokoak itota, garaiko pentsaera inposatuaren kontrako lehen matxinada saiakera martxan jarri zuen. Porrot mingarrian amaitu zen ordea, bere adin bueltako emakumeek babesa ukatzeaz aparte, mesprezatu eta zoro bezala hartu zutelako. Joxe eta Maribel, herriko txutxu-mutxuen protagonista izateaz nazkatuta, bere alaba besoetatik oratu eta masailak gorritu zizkieten zaplazteko bi jasoz, egongelako sofan eseri zuten.

- Hau lotsa hau zugatik sentitzen doguna esker txarreko karkabako arratoia! Emakumea zara, arrantzarako ahula, etxean otzana, gizonaren dependentea eta inolako erantzukizunik gabekoa. – amaren berbek zeharo akitu zuten bere borrokarako grina.

Bi urtez kaira heltzen zen bokarta, garbitu eta poteetan sartzen aritu zen. Bertan lanean ziharduten emakumeak errespetatu eta izugarri baloratzen zituen, lan nekeza baitzen. Ez zen besteak baino gehiago sentitzen, desberdina baizik. Ez zen kate lan hartara ohitzen, bere nahia beste bat baitzen, arrantzalea izatea. Ilunabar euritsu batean, lantokitik atera eta etxerako bidean, Sor Agustina ikusi eta maitekiro agurtu ostean, kai ondoko taberna batera gonbidatu zuen kafetxo bat hartzera.

- Begoña, gogotsu, ilusioz eta ekinean aritu ezker, nahi dozuna izan zeintekoz. Sinistu eizu zure balioetan, emakumeak indartsuak, boteretsuak, lehiakorak, arduratsuak eta anbiziodunak izan geintezke eta. – mojina zuhur hark konbentzitu egin zuen.

1908. urtean, amaren eta aitaren aginduei muzin eginez, etxetik alde egin zuen bere ametsa betetzeko, Santurtziko Nautika Eskolan lurrin makinaren mekanikari titulua lortzea. Ikaskideen, gizonezkoak guztiak, txantxa eta mesprezuek, indartu bakarrik egiten zuten bere jomuga. Aitaren moduko ontziratzeko txartel batean bere argazkia eta izen deiturak ikustearen desioa, bi urtetan bete zuen. Hortik itsasoratzeko pausua emateko aukerak berriz, hutsalak izan ziren. Kostako kai guztietan urte oso baten gau eta egun lan bila aritu ostean, gutxien espero zuen pertsonatik heldu zitzaion itsasoratzeko aukera.

- Zu! Lurrunezko ontzietan ibiltzeko makinista titulua dozula entzun dot kofradian. – Luis Allika zen, “Lenbizikoa” ontziko patroia, Latxaga – Larrañaga bikotearen etsaia – Gripe izurritea dau herrian, atunen kanpainen sartuta gauz bete betean eta ez dot makinistarik inon bez topaten.

- Benetan diñoztazu Luis? – gustu txarreko txantxa izango zenaren beldur zen baina itsasoratzeko beharrezko baimenen jabe zenaren papera sinatzera aginte zubira igo zuenean, kezka guztiak usatu zituen. Esperoan pasatutako garai latzak ahaztu egin zitzaizkion bat batean. Bizitzako oparirik onena jaso zuen egun hartan. – Konta neugaz, ez zara damutuko, “Lenbizikoaren” motorra inork baino hobeto zainduko dot. - 1912ko abuztuaren 10a zen dagoeneko.

Bere familiakoek, lagunek zein herritarrek ordea, ez zuten abegi onez ikusten Luisen erabakia.

- Emakume bat arrantzan? Zergatik? – berak esaldi labur bezain pisutsuaz erantzun zien denei.
- Eta zergatik ez?

Berria azkar zabaldu zen herrian eta ontziak aihenetik amarrak libratu zituenean, irain eta mesprezu artean agurtu zituzten. Denen ahotan zegoen Maribelek, Bilboko umezurztegira joateko hartutako erabakia madarikatzen zuen etengabe.

“Lenbizikoa”, abiada osoan, Bermeotik 50 milia inguru aldendu zen. Atun sardaren bila, beste 30 itsasontzik jarraitzen zuten berak utzitako ubera, haien artean, Joxek gidatutako “Santa Luciak”. Minutu gutxira, bokartak azalean noraezean antzeman zituzten, atuna hurbil zegoenaren seinale argia. Luisek lurrun motorra itzaltzeko agindu zion Begoñari eta marinela, banan-banan eta kanaberaz, atunak itsasontziratzen hasi ziren. 1912ko abuztuaren 12ko arratsaldea zen eta sartaldetik, frantziar arraste ontzi bat hurbildu zitzaiezen ulertzen ez zituzten seinaleak igorri argiekin. Bertan ziren ontzi guztietako marinela, mordoa, ez ziren gai izan itsas kodea deszifratzeko eta lanean jarraitu zuten hozkailuak atunez eta poltsikoak diruz betez.

Zubiko bigarrenak, gaueko hamaikak zirenaren garrasia botata, marinela guztiak afaltzera erretiratu ziren. Hozkailua atunez lepo bete, etxera bueltatu eta irabaziekin erosi behar zutenaren inguruan hizketan zebiltzan, sukaldariak prestatutako marmitakoak sabela berotu eta ardoak zintzurra bustitzen ziren bitartean.

Bestalde, “Lenbizikoaren” brankaren kontrako lehen olatu kolpeak, errotik eten zuen jantokiko algara. Mahai gaineko janari eta tresneria lurrera erori zen eta eskaileretatik ura sartzen hasten zenaz ohartu ziren. Begoñak ondoan zituen esperientzia handidun Miguel Maguregi, Ramon Basaldua eta Jose Luis Zaldunbide marinelek, patxadaz hartu zuten ezbeharrak, ontzi-gainera igo eta begien aurrean zutena ikusi zuten arte. Itsasoa zakar zegoela esatea, labur gelditzen zen. Sei metrotik gorako olatu txarrek, etengabe eta norabide finko gabe, punta puntako ontzia papera bezalaxe maneiatzen zuten. Eskarmentu handidun marinela, lepotik eskegita zuten San Juanen irudia musukatzen eta jainkoari salbazioa erregutzeko otoitzean hasi ziren soinu bakarrean. Luis Allikak, Begoñari motorra martxan jartzeko agindu zion eta istriborrera biratuz, olatu erraldoiei aurre egiteko brankaz jarri zuen bere “Lenbizikoa”. Erabaki zuzena berea, poparean ez baitzuen luzaroan ontzia azalean mantenduko.

Bertan zeuden bela ontzien zoria berriz bestelakoa izan zen. Haize ufada bortitz haiekin ezinezkoa zen bela erriatzea eta olatuak noiz irauliko zain zeuden. Luisek, aginte zubiko behatokitik bela ontzi ugariaren gilak agerian ikusi zituen. Zori berdina pairatzearen beldur eta bere kideen segurtasuna mantentzeko zuen arduragatik ordea, olatuen menpe sokorru garrasika zebiltzan marinela, bihozminez, atzean utzi zituen. Itsasontzien azken argia itzaltzarekin batera, marinela ugariaren bihotzak ere amatatu ziren. Bat batean, beste bi lankiderek salbamendu baltsa muntatzeko lanetan zebilela, haizearen zarata baino ozenagoa zen ahots garrazperatsu ezagun batek, Begoñaren arreta deitu zuen. Ababorreko karelera hurbildu eta “Santa Lucia” ontzia ikusi zuen iraultzeko zorian. Ez zen ontzi-gainean marinela ikusten baina ontzi barrutik zetozen garrasiek, haien presentzia ziurtatzen zuten.

- Aita, aita, aita! Hamen gagoz! Egon zaitzezie trankil, ontxe erriako deusuegu txikota eta! – zubira luzatu zuen begirada - Luis! Luis! Gelditu martxa, “Santa Lucia” dekoguz eta aurrera egin ezinik ababorrean – patrioiak ez zion jaramonik egin eta bitan pentsatu gabe, onespenik gabeko erabakia hartu zuen Begoñak. Galdarara jaitsi eta motorra itzali zuen.

Hiru marinel ziztu bizian hurbildu ziren bertara eta indarrez atera zuten handik. Inolako errukirik gabe, popa aldera jaurlti zuten eta Luisek motorra berriro martxan jartzeko agindua eman zion konfiantzazko beste makinistari.

- Zergatik? – galdetu zion etsipen handia sentitzen zuen emakumeak orekari ezin eutsiz.

- Eta zergatik ez? Badakizu urteatan zeure familiakoen erruagatik ze txarto pasa dodan? Uste dozu neure bizia eta neure marinelen arriskuen ipiniko dodala pizti horregatik? Ezta pentsa bez! – motorra berriro ere abian zegoela adierazten zuen harrabotsak, dudarik gabeko erabakia hartzerantz eraman zuen. Itsaso zakarrera salto egin zuen denek harridurarako.

“Santa Luciak” piztuta zuen azken argia erreferentziatzen hartuz, ozta-ozta heldu zen ontziko pontzara. Momentu hartan, olatu segidako azkenak, erraldoienak, ontzia irauli zuen, marinel guztiak barruan geldituz. Iluntasuna, hotza, zorabioa, izua eta desesperazioa nagusi ziren egoera hartan, burua hotz mantendu zuen Begoñak eta nautika eskolan ikasitako salbamendurako maniobrak aplikatzen hasi zen. Krosko barruko oxigenoak, ontzia guztiz urperatu arte, ordu laurdeneko beta eskaintzen zion marinela banan-banan ontzi barrutik ateratzeko. Gehiegizko pisuagatik bere lana oztopatzen zuten arropak erantsi eta biluzik, bost graduak kostata zituen urak bere azal zuria moretzen zuelarik, eginbeharrari ekin zion. Marinel askoren indarrak xahutzen eta Antonio Egiluz gazteak azken hatsa bere besoetan bota zuen ezbehar hartan, “Divina Pastora” ontziaren branka hurbildu zitzaien. Banan banan eta beraien bizia arriskuan jarritz, bizirik zirauteak ontziratu zituzten, hildakoak olatu dantzan desagertzen ziren bitartean. Begoñak, hala ere, bere lanean ziharduen buru belarri, aita falta baitzuen.

- Begoña! Igo ontxe bertan edo bestela, gu bagoaz, zeuk ikusi! – haize ufadak gero eta bortitza ziren.

- Ez dot aita bakarrik itziko, joan zeuek gure badozue! – arduratsu jokatz baina bizitza osoan jarraika izango zuen erabakia hartuz, etxerako bidea hartu zuen Angel Mari patrioiak. Atzera begiratu eta eskutik helduta zirela, arrantzale lana hainbeste estimatu eta goستن zuten bi marinela, betirako, Bizkaiko Golkoan urperatzen ikusi zituen.

Abuztuaren 14an, galernaren gupida izan zuten ontziek porturatzea lortu zuten, jadanik ezbeharraren berri zuten familiakoen harrera beroa bezain tristea jasoz. 141 arrantzale ito ziren 1912ko abuztuaren 12ko zorizaiztoko gau hartan. Bermeotar, Lekeitiar eta Elantxobetar haien omenez, narrazio labur hau. Ez zaituztegu sekula ahaztuko.